

EAEEn bizi diren gazteen %42k arduraz kontsumitzen du: preziorik onena bilatzen du, erreklamatu egiten du arazorik edukiz gero, eta saiatzen da ingurumena zaintzen

Halaxe egiaztatu du Gazteen Euskal Behatokian plazaratu duen "Kontsumo arduratsua EAEko gazteen artean" argitalpenak.

Euskadiko Gazteen Joerak bildumaren seigarren zenbakiak [Gazteen Euskal Behatokia](#) landu duen "[Kontsumo arduratsua EAEko gazteen artean](#)" izeneko ikerketa jasotzen du, eta, batez ere, *nola* kontsumitzen den galderari erantzun nahi izan dio, eta ez hainbeste *zer* edo *zenbat* kontsumitzen den. Asmoa izan da jakitea zenbateraino jabetzen diren gazteak edozein produktu edo zerbitzu kontsumitzeak dituen ondorioez norberarentzat, gizartearentzat eta ingurumenarentzat.

Ikerketak erakusten du lau kontsumo-motarekin loturiko jokabideen neurria: kontsumo arrazionala, etikoa, iraunkorra eta alternatiboa. Lau kontsumo-mota horien konbinazioak kontsumo arduratsuaren indize sintetikoa ematen du, eta horren arabera EAEko gazteen % 42k arduraz kontsumitzen du.

Kontsumo arrazionalak, euskal gazteen % 58k erakusten duenak, zera esan nahi du, "zer erosiko duen aurretik pentsatzeko ohitura dago", "zenbat gastatuko den", "denda ezberdinetako prezioak konparatzen dira", "faktura konprobatzen da", "bermea konprobatzen da" eta "erreklamatu egiten da arazorik izanez gero". Zenbat gaztek egiten duten kontsumo arrazional bat zehazteko, kontuan hartu dira "arrazionaltzat" jotzen diren sei jokabide horietatik lau gutxienez bete ohi dituzten gazteak.

Ikertu den bigarren kontsumo-mota dela eta, euskal gazteen % 41ek erakusten du **kontsumo iraunkorra** baliatzeko ohitura. Kontsumo iraunkorraren indizea kalkulatzeko, bost jokabide hartzen dira kontuan, eta horietatik lau bete behar dira, gutxienez, ohiko kontsumoa iraunkortzat jotzeko. "Pakete gutxi daramaten produktuak erosten saiatzea", "norberaren poltsa edo orga eramatea erosketak egiterakoan", "etxeko zaborrak hondakin-motaren arabera banatzea", "uraren kontsumoa murriztea" eta "garraio publiko edo kolektiboa erabiltzea, edota kotxea beste batzuekin batera erabiltzea".

Kontsumo alternatiboa egiten dute inoiz edo behin gizarteko kontsumobide minoritarioak baliatzen dituztenek, hala nola, bidezko merkataritzako produktuak edo bigarren eskuko produktuak erostea, truke-merkatuetan parte hartzea edo batzuen arteko erabilerarako erostea. Irizpide horren arabera, euskal gazteen % 22k kontsumo alternatiboa egiten du.

Azkenik, **kontsumo etikoak** erakusten du kontsumitzeak besteentzat eta ingurumenarentzat dituen ondorioez zenbateraino jabetzen diren gazteak. Indizea kalkulatzeko, honako bost gaiei buruzko erantzunetatik gutxienez hirutan gutxienez baiezkoa eman dutenak kontuan hartu dira: "produktua benetan behar duzun", "sortuko dituen zaborrak edo hondakinak", "lehengaia", "bere ekoizpenean inolako bidegabekeria/injustizia sozialik egin den" eta, azkenik, "bere ekoizpenak edo garraioak ingurumenaren gainean eraginik ekarri duen". Kontsumo etikoak exijentzia-maila handia dakar berekin; euskal gazteek gutxien betetzen duten kontsumo mota da: % 15ek bakarrik kontsumitzen du etikoki.

Ikerketa honetan agerian geratu da **kontsumo arduratsua ohikoagoa dela adinean gora egin ahala**. Nahiz eta elkarrizketatu ditugun pertsona gazteen artean –15 eta 19 urte bitartekoen artean– hauteman dugun oso arduratsuak ez diren kontsumo-ohiturak dituztela askotan, esate baterako publizitateak eta markismoak eragindako bulkaden mendeko kontsumo-ohiturak eta premiari baino gehiago norberaren nahiari jarraitzen dioten kontsumo-ohiturak dituzte; hala ere, datuek erakusten dute halako jarrerak desagertu egiten direla adinean gora egin ahala.

Oso konklusio positiboa da. Batetik, **egiaztatu ahal izan dugulako gazteak kontzientziatzeko egindako lana arrakastatsua izan dela**: bai Kontsumobideren prestakuntza-zentroek egindako lana, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen bulegoen lana, argitaratutako material didaktikoa, sentsibilizazio-kanpainak, informazio-gidaliburuak, kontsultarako webguneak eta abar. Horrezaz gain, zalantzarik gabe, **ingurumenarekiko errespetu handiagoa erakusten duten jokabideak garatu dira**, birziklatzearekin zerikusia duten azpiegiturei esker: hondakinak bereizita jasotzeko ontziak eta Garbiguneak, kontsumo baxuko bonbillak doan banatzeko kanpainak, uraren kontsumoa murriztea xede zuten kanpainak, erabilera bakarreko plastikozko poltsak desagerrarazteko kanpainak...

Baina, beste aldetik, ohartu gara **oraindik ere badugula zer egina**. Izan ere, badirudi gazteei oraindik ere erakargarria egiten zaiela kontsumismo sakonena, hau da, neurri gabe erostea edo eskuratzea, eta hala, erosketak egitea ondo sentitzearekin lotzen dute, bai eta zorionarekin ere zenbaitetan.

Ezinbestekoa da lantzea erabili-eta-botatzeko ohiko formula desagerraraztea bultzatzen duten kontsumoaren alderdiak, produktuak berrerabil daitezen, ondasunak zenbaiten artean eskura daitezen, trukea eta bidezko merkataritzako produktuak eros daitezen sustatuta. Beharrezkoa da, halaber, jabetzea mundu globalean produktu bat erosteak bidegabekeria sozialak iraunaraztea eragin dezakeela.

Ikerketaren oinarria 15 eta 29 urte bitarteko gazteei egindako inkesta bat da. Emaiza esanguratsuenez gainera, argitalpenak aukera ematen du erabili den galdetegia ikusteko eta bildutako datu guztiak kontsultatzeko, zortzi aldagaien arabera banaturik: bizitokiaren lurralde historikoa, sexua, adin-taldea, udalerrriaren tamaina, ogibide nagusia, emantzipazioa, hilean eskura duten diru-kopurua eta gizarte-maila subjektiboa.